

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 227/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako kausengatik, enplegurako prestakuntzarako laguntzen 2020rako deialdia, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 808/2019 Erabakiaren bidez onetsia

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 808/19 Erabakiaren bidez, onetsi zen enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdia, zeinaren helburua baita prestakuntza zentroek, prestakuntza erakundeek eta Arabako kuadrillek prestakuntza jarduerak (enplegurako prestakuntza ikastaroak) gauza ditzaten bultzatzea.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, Espainiako gobernua alarma egoera ezarri zuen lurralde osoan, Covid-19 gaixotasuna hedatzearen ondorioz sortutako osasun krisi larria zela eta.

Ezohiko egoera hori izaten ari den eragina eta dirubilketan aurreikusten den murrizketa dela eta, Arabako Foru Aldundiak aurrekontuak egokitu behar izan ditu, bai eta neurriak hartu ere, aurrekontuak berrantolatzeke eta hasiera batean beste helburu batzuetarako aurreikusitako kredituak (esaterako, enplegurako prestakuntzarakoak) Covid gaixotasunak eragindako kolektibo bideratzeko.

Bestalde, administrazio prozeduren izapidetzea etenda egon denez, ezin da bermatu laguntza horien ebazpena abuztua baino lehen emango denik. Horiek horrela, erakunde onuradunek zailtasun handiak izango lituzkete prestakuntza jarduerak gauzatzeko; izan ere, jarduerak deialdiaren esleipen ebazpena ematen denetik aurrera antolatu beharko liriateke, eta 2020ko azaroaren 30a baino lehen amaitu.

Horrenbestez, egokia da aipatutako deialdia indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik.

Horregatik guztiagatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, enplegurako prestakuntza emateko laguntzen 2020ko ekitaldiko deialdia, zeina onetsi baitzen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 808/19 Erabakiaren bidez.

Bigarrena. Bertan behera uztea gastu baimen hauek:

– 563.000,00 euro, 30.5.02.3500.481.00.01 aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20 105.130/000).

– 150.000,00 euro, 30.5.02.3500.465.00.01 aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20 105.59/000).

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta ebazpen hau jakinaraztea enplegurako prestakuntza emateko 2020ko ekitaldiko laguntzen eskatzaile izan diren irabazteko xederik gabeko erakundeei eta Arabako kuadrillei.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta

Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES